

Foru Seilua
Timbre Foral



N28839493 C

ERANSKINA: BAI&BY Fundazioaren estatutuen testu bategin berria

Euskara	Castellano
LEHEN ATALA. ARAU OROKORRAK	CAPÍTULO PRIMERO. NORMAS GENERALES
1. artikulua. - Izena eta izaera	Artículo 1º. - Denominación y naturaleza
"bai & by" izenaz sortzen da Fundazioa. Irabazi-asmorik gabea da, eta haren ondarea erakundearen interes orokorreko helburuei atxikirik egongo da modu iraunkorrean.	La Fundación se constituye con la denominación "bai & by". Es sin ánimo de lucro y su patrimonio estará afectado, de modo duradero, a los fines de interés general de la entidad.
2. artikulua. - Nortasuna eta gaitasuna	Artículo 2º. - Personalidad y capacidad
Fundazioak, Erregistroan erregistratu eta gero, berariazko nortasun juridikoa eta iharduteko gaitasun osoa izango du. Hortaz, bere helburuak betetzeko behar den guztia egin ahal izango du, beti ere ordenamendu juridikoak ezarritakoaren arabera.	La Fundación, una vez inscrita en el Registro, tendrá personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar. Por lo tanto, podrá realizar todos aquellos actos que sean necesarios para el cumplimiento de sus fines, con sujeción a lo establecido en el ordenamiento jurídico.
3. artikulua. - Eraentza	Artículo 3. - Régimen
Fundazioa gobernatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 9/2016 Legea, ekainaren 2koa ("EAEFL") eta indarrean dauden gainerako legeak, Fundatzaileek estatutu hauetan adierazitako borondatea eta Patronatuak estatutuak interpretatu eta garatzeko ezarritako arauak eta xedapenak erabiliko dira.	La Fundación se regirá por la Ley 9/2016, de 2 de junio, de Fundaciones del País Vasco ("LFPV") y por las demás disposiciones legales vigentes, por la voluntad de los Fundadores manifestada en estos estatutos y por las normas y disposiciones que, en interpretación y desarrollo de los mismos, establezca el Patronato.
Fundazioaren, beraren organo guztien eta berak gehiengoa duen enpresa eta erakundeen laneko hizkuntza euskara izango da.	La lengua de trabajo de la Fundación, de todos sus órganos y de las empresas y entidades en los que tenga una participación mayoritaria será el euskera.
4. artikulua. - Helbidea	Artículo 4. - Domicilio
Fundazioaren helbidea honako hau izango da: Urkixo zumardia, 22 behea, 48008 Bilbo.	El domicilio de la Fundación queda fijado en Alameda de Urquijo, 22 bajo, 48008 Bilbao.
Patronatuak helbidea aldatu ahal izango du. Horretarako, Estatutuak aldatu egin beharko ditu, indarrean dauden legeetan zehazten den moduan.	El Patronato podrá modificar el domicilio. A tal efecto, deberá proceder a la modificación de los Estatutos, en los términos que se determinen en la legislación vigente.
5. artikulua. - Ihardun-eremua	Artículo 5. - Ámbito de actuación
Fundazioaren ihardun-eremu nagusia Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.	El ámbito de actuación principal de la Fundación será la Comunidad Autónoma del País Vasco.



BIGARREN ATALA. FUNDAZIOAREN HELBURUA, ONURADUNEN ZEHAZTAPENA ETA FUNDAZIOAREN HELBURUAK LORTZEKO BALIABIDEAK BIDERATZEKO OINARRIZKO ARAUAK	CAPÍTULO SEGUNDO. OBJETO DE LA FUNDACIÓN Y REGLAS BÁSICAS PARA LA DETERMINACIÓN DE LOS BENEFICIARIOS Y LA APLICACIÓN DE LOS RECURSOS AL CUMPLIMIENTO DE LOS FINES FUNDACIONALES
6. artikulua. – Helburuak	Artículo 6. - Fines
Fundazioaren helburuak hurrengoak dira:	Los fines de la Fundación son los siguientes:
1. <u>Euskara eta euskal kultura suspertu eta bultzatu:</u>	1. <u>Estimular y fomentar el euskera y la cultura vasca:</u>
Honekin lotutako iharduerak, informazio gisa eta ez muga gisa, honako hauek izango dira:	Las actividades relacionadas con este fin serán, con carácter enunciativo y no exhaustivo, las siguientes:
a) Euskal Herriko zazpi herrialdeetan, eta bereziki, euskara ahul dagoen lurralde eta eremuetan, euskara suspertu, bultzatu eta prestigiatzeko ekimenak bultzatzea.	a) Impulsar iniciativas dirigidas a la promoción, fomento y prestigio del euskera en los siete territorios de Euskal Herria y, en particular, en los territorios y zonas en los que el euskera se encuentra en situación de vulnerabilidad.
b) Euskara irakasteko tresnak eta materialak garatu eta bultzatzea.	b) Desarrollar e impulsar herramientas y materiales para la enseñanza del euskera.
c) Ikasleei dirulaguntzak zein bekak ematea.	c) Concesión de subvenciones y becas al alumnado.
d) Euskararen inguruko ikerketak suspertzea.	d) Promover la investigación en torno al euskera.
e) Honen inguruko kultur ekitaldi zein lehiaketak antolatzea.	e) Organizar eventos y concursos culturales al respecto.
f) Giza-talde bereziei zuzendutako euskararen inguruko politikak bultzatzea.	f) Impulsar políticas en torno al euskera dirigidas a colectivos específicos.
g) Euskara teknologia berrietara egokitzeko eta beronen erabilera bultzatzeko neurriak suspertzea.	g) Impulsar medidas para la adaptación y el fomento del uso del euskera en las nuevas tecnologías.
h) Eta, oro har, aipatutakoen antzekoa edo osagarria den edo halekin lotuta dagoen zernahi iharduera.	h) Y, en general, cualquier actividad análoga o accesoria a las mencionadas o relacionada con las mismas.
2. <u>Hezkuntza sistema adituak zabaltu eta hezkuntza-baliabideak sozializatu. hezkuntza eskubidea errealtate bihurtu dadin:</u>	2. <u>Difundir sistemas educativos expertos y socializar los recursos educativos para hacer realidad el derecho a la educación:</u>
Honekin lotutako iharduerak, informazio gisa eta ez muga gisa, honako hauek izango dira:	Las actividades relacionadas con este fin serán, con carácter enunciativo y no exhaustivo, las siguientes:

a) Behar berezietako giza-taldeentzako hezkuntza sistema egokituak zabaltzea.	a) Difundir sistemas educativos adaptados para colectivos con necesidades especiales.
b) Beste hizkuntza gutxiengodunentzako programak sortzea.	b) Creación de programas para otras lenguas minoritarias.
c) Haurrentzako hezkuntza software-ak garatzea.	c) Desarrollo de software educativo infantil.
d) Teknologien sarbidea diren hizkuntzen irakaskuntza laguntzea (ingelesa,...).	d) Apoyar la enseñanza de idiomas de acceso a las tecnologías (inglés,...).
e) Eta, oro har, aipatutakoen antzekoa edo osagarria den edo haiekin lotuta dagoen zernahi iharduera.	e) Y, en general, cualquier actividad análoga o accesoria a las mencionadas o relacionada con las mismas.
3. <u>Garapen bidean dauden herriekiko elkartasuna:</u>	3. <u>Solidaridad con los países en vías de desarrollo:</u>
Honekin lotutako iharduerak, informazio gisa eta ez muga gisa, honako hauek izango dira:	Las actividades relacionadas con este fin serán, con carácter enunciativo y no exhaustivo, las siguientes:
a) Hezkuntza-produktuen garapena bultzatu horrelako herrietan, hizkuntza irakaskuntza barne.	a) Impulsar el desarrollo de productos educativos en estos países, incluida la enseñanza de idiomas.
b) Bertako enpresak edo software-proiektuak bultzatu.	b) Impulsar empresas locales o proyectos de software.
c) Diru-laguntzak eman edo garapen bidean dauden herrietan beharrik premiazkoenak asebetetzeko proiektuak bultzatu.	c) Conceder subvenciones o impulsar proyectos que satisfagan las necesidades más urgentes en los países en vías de desarrollo
d) Eta, oro har, aipatutakoen antzekoa edo osagarria den edo haiekin lotuta dagoen zernahi iharduera.	d) Y, en general, cualquier actividad análoga o complementaria a las mencionadas o relacionada con las mismas.
7. artikulua. - Onuradunak zehaztea	Artículo 7. - Determinación de los beneficiarios
Fundazioak objektibitatea eta inpartzialtasuna izango ditu gidari onuradunak hautatzeko eta ezin izango du inolako diskriminazio negatiborik ezarri. Horretarako, bere helburu eta iharduerei behar beste publizitate emango die, onuradun edo interesatu izan daitezkeenek ezagutu ditzaten. Publiko orokorrari zuzendutako beka, sari edo antzeko ihardueren oinarrietan argi eta garbi zehaztuko dira onuradunak hautatzeko irizpideak.	La Fundación actuará con criterios de objetividad y de imparcialidad en la selección de sus beneficiarios sin que pueda producirse discriminación negativa alguna. A estos efectos, dará la suficiente publicidad a sus objetivos y actividades para que puedan ser conocidos por sus eventuales beneficiarios o interesados. En el caso de dotación de becas, premios y actividades similares dirigidas al público en general, las bases de dichos eventos definirán con claridad los criterios de selección de los beneficiarios.
Patronatuak iharduera konkretu bakoitzarako onuradunak hautatzeko irizpideak ezarriko ditu, beren ezaugarrien eta Fundazioaren interes	El Patronato establecerá los criterios para la selección de los beneficiarios para cada actividad concreta, en función de sus características y de los



orokorreko helburuen arabera. Aipatutako irizpideak ezartzeko ondoko printzipioak aintzat hartuko dira:	finde de interés general de la Fundación. Para el establecimiento de dichos criterios se tendrán en cuenta los siguientes principios:
Euskara eta euskal kulturaren sustapenera zuzenduriko ihardueretan, lehentasuna emango zaie sustapen horretan nabarmendu diren pertsona eta kolektiboek, bereziki borondatezko eta irabazi-asmorik gabeko ihardueren bidez. Euskalduntze prozesuan dagokien Euskal Herriko zazpi lurraldeen herri administrazioetako departamendu eskudunek lehentasunezkoak deklaratu dituzten kolektiboek ere lehentasuna izan dezakete.	- En las actividades dirigidas a la promoción del euskera y de la cultura vasca se dará prioridad a las personas y colectivos que hayan destacado en dicha promoción, especialmente a través de actividades voluntarias y sin ánimo de lucro. También pueden tener prioridad aquellos colectivos que hayan sido declarados prioritarios por los departamentos competentes de las administraciones públicas de los siete territorios de Euskal Herria correspondientes al proceso de euskaldunización.
Hezkuntza baliabideen zabalpen eta sozializazioa zuzenduriko neurrietan premia bereziko kolektibo edo talde sozialei (adibidez: urritu fisiko edo psikikoak, gaixoen senide elkarteak etab.), hezkuntzara heltzea zail duten kolektiboek (adibidez: presoak, etorkinak, etab.) eta erregio edo gutxiengodunen hizkuntzatan diharduten kolektiboek lehentasuna emango zaie.	- En las medidas dirigidas a la ampliación y socialización de los recursos educativos se dará prioridad a colectivos o grupos sociales de especial necesidad (p.e. personas con discapacidades físicas o psíquicas, asociaciones de familiares de enfermos, etc.), colectivos de difícil acceso a la educación (p.e. personas presas, inmigrantes, etc.) y colectivos que trabajen en lenguas regionales o minoritarias.
- Garapen bidean dauden herriekiko elkartasunera zuzenduriko neurrietan baliabide gutxiko eremuetako kolektibo edo talde sozialei, bereziki irabazi-asmorik gabeko eta Fundazioaren helburu analogoak edo bestelako helburu sozialak dituztenei, lehentasuna emango zaie.	- En las medidas dirigidas a la solidaridad con los países en vías de desarrollo se dará prioridad a colectivos o grupos sociales de zonas de bajos recursos, en particular, a aquellos sin ánimo de lucro y con fines análogos a los de la Fundación o a aquellos con otros fines sociales.
- Beka eta laguntza ekonomikoak ematerakoan, banakako eskatzaileen ekonomi baliabide falta aintzat hartuta da, eta eskatzaile kolektiboek kasuan helburu sozial duten edo irabazi-asmorik gabeko erakundeei lehentasuna emango zaie.	- En la concesión de becas y ayudas económicas se ha de tener en cuenta la falta de recursos económicos de los solicitantes individuales y en el caso de solicitantes colectivos se dará prioridad a las entidades con fines sociales o sin ánimo de lucro.
Onuradunen aurretiazko hautaketetan, Patronatuak Fundazioaren helburuak eta azalduetako printzipioak betetzen direla bermatzen duten beste erakundeen laguntza eskatu ahal izango du.	En las elecciones previas de los beneficiarios, el Patronato podrá recabar la colaboración de otras entidades que garanticen el cumplimiento de los fines fundacionales y de los principios expuestos.
8. artikulua. - Errenten eta diru-sarrerren erabilera	Artículo 8. - Destino de rentas e ingresos
8.1. Patronatuak, Fundazioaren baliabideak erabiltzeko orduan, indarrean dagoen legeriak xedatzen duena beteko du: Fundazioaren helburuetarako, fundazioaren emaitzen kontuko diru-sarrerren % 70 erabili beharko da gutxienez, kontzeptu guztiengatik lortutakoak, diru-sarrerak (zergak barne) lortzeko egindako gastuak kenduta, fundazioaren helburuak betetzeari dagozkionak izan ezik. Betebehar hori betetzeko epeari	8.1 El Patronato, a la hora de utilizar los recursos de la Fundación, se atenderá a lo dispuesto en la legislación vigente: a la realización de los fines fundacionales deberán ser destinados, al menos, el setenta por ciento de los ingresos de la cuenta de resultados, obtenidos por todos los conceptos, deducidos los gastos en los que hayan incurrido para la obtención de los ingresos (incluidos los impuestos), excepto los referentes al

Orta

[Signature]

[Signature]

[Signature]

[Signature]

dagokionez, emaitzak eta diru-sarrerak lortu diren ekitaldiaren hasieraren eta ekitaldi hori itxi ondorengo hiru urteen artekoa izango da hura. Aurreko paragrafoan xedatutakoa betetzera bideratu behar ez diren gainerako errentak edo sarrerak, behin administrazio-gastuak kendu eta gero, erreserbak edota zuzkidura handitzeko erabiliko dira, Patronatuaren erabakiaren arabera.	cumplimiento de los fines fundacionales. El plazo para el cumplimiento de esta obligación será el comprendido entre el inicio del ejercicio en el que se hayan obtenido los respectivos resultados e ingresos y los tres años siguientes al cierre de dicho ejercicio. El resto de las rentas o ingresos que no deban destinarse a cumplir con lo dispuesto en el párrafo anterior, una vez deducidos los gastos de administración, deberán destinarse a incrementar la dotación o las reservas, según acuerde el Patronato.
8.2. Fundazioak bere baliabideak 6. artikuluan aipatutako xedeetara bideratuko ditu, xede bakoitzari hurrengo gutxieneko proportzioetan:	8.2 La Fundación destinará sus recursos a los fines señalados en el artículo 6, en las siguientes proporciones mínimas a cada fin:
• Euskara eta euskal kultura suspertu eta bultzatu: Fundazioaren sarrera garbien %15a.	• Estimular y fomentar el euskera y la cultura vasca: 15% de los ingresos netos de la Fundación.
• Hezkuntza sistema adituen zabalketa eta hezkuntza baliabideak sozializatzea, hezkuntza eskubidea errealitate bihur dadin: Fundazioaren sarrera garbien %10a.	• Difusión de sistemas educativos expertos y socialización de los recursos educativos para hacer realidad el derecho a la educación: 10% de los ingresos netos de la Fundación.
• Garapen bideko herriekiko elkartasuna: Fundazioaren sarrera garbien %10a.	• Solidaridad con los países en desarrollo: 10% de los ingresos netos de la Fundación.
Kopuru hauek kalkulatzeko Fundazioaren diru sarrera garbiak hartuko dira kontuan, ondarezko diru-izendapen gisa egindako ekarpenak ez badira.	Para el cálculo de estas cantidades se tendrán en cuenta los ingresos netos de la Fundación, salvo que se trate de aportaciones realizadas en concepto de dotación fundacional.
Fundazioaren proiektu batek xedeetako bat baino gehiagori erantzuten badio, Patronatuak proiektu honen kopurua helburuen artean esleituko du egoki deritzon proportzioan.	En el caso de que un proyecto de la Fundación responda a más de uno de los fines fundacionales, el Patronato asignará este proyecto entre los fines en la proporción que estime conveniente.
Xede baterako urte batean 8.2 artikuluko lehen paragrafoan aurreikusitakoa baino gutxiago gastatzen bada, defizit hori hurrengo bi urteetan bete beharko da. Aldiz, urte batean gutxienekoa baino gehiago gastatzen bada, aurreko urteetako defizita balego, defizit hori betetzeko erabiliko da superabita. Aurreko urteetako defizitak ez balego edota defizit hori bete ostean superabita geratzen bada, geratzen den superabita kontuan hartu ahal izango da hurrengo bi urteetako defizitak betetzeko. Inoiz ez dira gastuak behin baino gehiagotan kontuan hartuko. Paragrafo honetan aurreikusitakoak ez dio inolara ere eragingo aurreko 8.1 artikuluan aurreikusitakoari.	Si en un año se gasta menos de lo previsto en el primer párrafo del presente artículo 8.2 para un fin, este déficit deberá cumplirse en los dos años siguientes. En cambio, si en un año se gasta más del mínimo, si hubiera déficit de años anteriores, el superávit se destinará a compensar ese déficit. En el caso de que no existiera déficit de años anteriores o que una vez cubierto dicho déficit quedara superávit, el superávit restante podrá tenerse en cuenta para cumplir los déficits de los dos años siguientes. En ningún caso se tendrán en cuenta más de una vez los gastos. Lo previsto en el presente párrafo en ningún caso afectará a lo previsto en el artículo 8.1 anterior.
8.3. Fundazioaren helburuak betetzeko, Patronatuak artikuluko honen ezartzen dituen muga	8.3 Para el cumplimiento de los fines fundacionales, el Patronato, dentro de los límites



baruan une bakoitzean egokienak edo komenigarrienak iruditzen zaizkion iharduerak zehaztuko ditu.	que establece el presente artículo, determinará las actuaciones que estime más convenientes o adecuadas en cada momento.
9. artikulua. - Iharduteko askatasuna	Artículo 9. - Libertad de actuación
Fundazioak honakoak egin ahal izango ditu:	La Fundación podrá:
a) Era guztietako iharduera ekonomikoak garatu, bere helburuak lortzearen.	a) Desarrollar todo tipo de actividades económicas para la consecución de sus fines.
b) Era guztietako ondasunak eta eskubideak edozein tituluz eskuratu eta eskualdatu, eta era guztietako eginbideak, negozioak eta kontratuak egin.	b) Adquirir y transmitir por cualquier título toda clase de bienes y derechos y llevar a cabo toda clase de actos, negocios y contratos.
c) Bere helburuak betetzeko, enpresa, elkarte edo edozein motatako erakundetan parte hartu, EAEFLaren 30. artikulua ezarritakoaren arabera.	c) Para el cumplimiento de sus fines, participar en empresas, asociaciones u organizaciones de cualquier naturaleza, de acuerdo con lo establecido en el artículo 30 de la LFPV.
d) Era guztietako egintzak, indarrean dagoen legeria eta bere estatutuen arabera.	d) Llevar a cabo todo tipo de actos, de acuerdo con la legislación vigente y sus estatutos.
Aipaturiko iharduera guztiak Estatutu hauen, EAEFLaren eta indarrean dagoen beste legeriaren arabera egingo dira.	Todas las actividades mencionadas se regirán por los presentes Estatutos, LFPV y por la demás legislación vigente.
HIRUGARREN ATALA. FUNDAZIOAREN GOBERNUA	CAPÍTULO TERCERO. GOBIERNO DE LA FUNDACIÓN
10. artikulua. - Izaera	Artículo 10. - Naturaleza
Patronatua Fundazioaren gobernu-organoa, ordezkaria eta administratzailea izango da. Ordenamendu juridikoan eta Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera beteko ditu bere eginkizunak Patronatuak.	El Patronato es el órgano de gobierno, representación y administración de la Fundación. El Patronato ejercerá sus funciones conforme a lo dispuesto en el ordenamiento jurídico y en los presentes Estatutos.
11. artikulua. - Patronatuaren osaera	Artículo 11. - Composición del Patronato
Patronatua kide anitzeko organoa izango da, gutxienez bost kidez eta gehienez hamaika kidez osatua.	El Patronato será un órgano colegiado compuesto por un mínimo de cinco y un máximo de once miembros.
Pertsona fisikoak zein juridikoak izan daitezke patrono, indarrean dagoen legeriak ezarritako mugak kontuan hartuz. Patrono izateko euskaraz jakin beharko da, edo, patrono pertsona juridikoa bada, ordezkari izendatutako pertsona fisikoak euskaraz jakin beharko du.	Podrán ser patronos tanto las personas físicas como las jurídicas, con las limitaciones establecidas por la legislación vigente. Para ser patrono habrá que saber euskera o, si el patrono es una persona jurídica, la persona física designada como representante deberá saber euskera.
Hasieran Patronatua sortzaileek izendatutako kideez osatuta egongo da. Sortze-ekitaldiaren	Inicialmente el Patronato estará integrado por las personas designadas por los fundadores. Con

Handwritten signature/initials.

Handwritten signatures and initials at the bottom of the page.

ondoren, Patronatuko kide-kopurua zehaztea - estatutu hauen mugen barruan- eta kideak izendatzeko -hutsuneak betetzeko edota kideak berritzeko-, Patronatuari berari dagokio 22. artikulua 4. zenbakiak ezartzen duen gehiengoaren bidez.	posterioridad al acto fundacional, la determinación del número de miembros del Patronato, dentro de los límites estatutarios, así como la designación de las personas que hayan de desempeñar el cargo, cubriendo vacantes y renovaciones, corresponderá al mismo Patronato, por la mayoría que establece el apartado 4 del artículo 22.
Patronatuak bere kide kopurua aldatu ahal izango du edozein momentutan aipatutako mugen barnean. Kide kopurua gehitzeko kasuan, Patronatuak kide berriak izendatuko ditu.	El Patronato podrá modificar su número de miembros dentro de los límites señalados en cualquier momento. En caso de aumento del número de miembros, el Patronato nombrará nuevos miembros.
12. artikulua. - Agintaldiaren iraupena	Artículo 12. - Duración del mandato
Patronoen agintaldia bost urtekoa izango da. Patronatua berritu behar denean, Patronatuak patrono berriak izendatuko ditu kargugabetu behar diren patronoen agintaldia amaitu baino lehen.	El mandato de los patronos será de cinco años. Cuando sea necesaria la renovación del Patronato, éste nombrará a los nuevos patronos antes de que finalice el mandato de los patronos que deban ser cesados.
Patronatuak edozein momentutan patrono bat edo gehiagoren kargugabetzea eta kide berrien izendapena erabaki dezake.	El Patronato podrá acordar en cualquier momento la destitución de uno o más patronos y el nombramiento de nuevos miembros.
Patronatuko kideak mugarik gabe berrautatu ahal izango dira.	Los miembros del Patronato podrán ser reelegidos indefinidamente.
13. artikulua. - Patrono-kargua onartzea	Artículo 13. - Aceptación del cargo de Patrono
Patronatoko kideak kargua beren-beregi onartu ondoren hasiko dira karguari dagozkion eginkizunak betetzen.	Los Patronos entrarán a ejercer sus funciones después de haber aceptado expresamente el cargo.
Izendatutako pertsonak berariaz onartu beharko dute kargua EAEFLan aurreikusitako moduren baten bidez.	Las personas nombradas deberán aceptar expresamente el cargo mediante alguna de las formas previstas en la LFPV.
14. artikulua. - Patrono-kargua uztea	Artículo 14. - Cese el cargo de Patrono
Fundazioaren Patronatuko kideen kargu-uztea honako arrazoiengatik gerta daiteke: heriotzagatik edo hildakotzat deklaratu izateagatik eta halaber pertsona juridikoa iraungitzen delako; uko egiteagatik, behar den bezala jakinaraziz gero; ezgaitasunagatik, desgaikuntzagatik edo bateraezintasunagatik, legeak ezarritakoaren arabera; ebazpen judizialagatik; 25. artikuluan ezarritako arrazoiengatik; Patronatuaren akordioagatik 12. artikulua arabera eta legean ezarritako beste edozein arrazoiengatik.	El cese de los patronos de la Fundación se producirá en los supuestos siguientes: por muerte o declaración de fallecimiento, así como por extinción de la persona jurídica; renuncia comunicada con las debidas formalidades; por incapacidad, inhabilitación o incompatibilidad, de acuerdo con lo establecido en la Ley; por resolución judicial; por las razones establecidas en el artículo 25; por acuerdo del Patronato, de conformidad con lo establecido en el artículo 12 y por cualquier otra causa prevista en la ley.
Karguari uko egitea Patronatoari jakinarazi beharko zaio eta modu frogagarrian jakinarazten	La renuncia deberá comunicarse y será efectiva desde que se notifique fehacientemente al



zaion unetik aurrera izango da eraginkorra eta, Fundazioen Erregistroan inskribatu ahal izateko, EAEFLan aurreikusitako moduren baten bidez egiaztatu beharko da.	Patronato y, para su inscripción en el Registro de Fundaciones, deberá acreditarse mediante alguna de las formas previstas en la LFPV.
Patrono-kargua hutsik gelditzen denean, eta, honen ondorioz, Patrono kideen kopurua gutxienekoa baino txikiagoa bada, Patronatuak patrono berria 22. artikulua ezarritako gehiengoaz izendatuko du, eta beronen agintaldiaren iraupena ordezkatzeko duen patronoari geratzen zitzaiona izango da.	En los casos de vacante del cargo de patrono en los que, como consecuencia, el número de Patronos sea inferior al mínimo, el Patronato nombrará al nuevo Patrono por la mayoría establecida en el artículo 22, siendo la duración de su mandato la que restaba al patrono que sustituye.
15. artikulua. - Patronatuaren antolaketa	Artículo 15. - Organización del Patronato
Patronatuak Patronatuko kideen artean Presidente bat eta Presidenteorde bat izendatuko ditu. Idazkari bat eta idazkariorde bat ere izendatuko ditu, baina hauek ez dute nahitaez Patronatuko kideak izan behar.	El Patronato nombrará de entre sus miembros un Presidente y un Vicepresidente. Nombrará, asimismo, un secretario y un vicesecretario, que no tienen por qué ser necesariamente miembros del Patronato.
16. artikulua. - Presidentea	Artículo 16. - El Presidente
Presidentea Fundazioaren ordezkaria izango da era guztietako pertsona, agintari eta erakunde publiko eta pribatuaren aurrean; Patronatuaren bilera-deiak egingo ditu, bilera horietan buru izango da, eztabaidak zuzentzen, eta, hala dagokionean, Patronatuaren erabakiak gauzatu egingo ditu. Horretarako, era guztietako egintzak egin eta behar diren dokumentuak sinatu ahal izango ditu.	Al Presidente le corresponde ostentar la representación de la Fundación ante toda clase de personas, autoridades y entidades públicas y privadas; convocará las reuniones del Patronato, las presidirá, dirigirá sus debates y, en su caso, ejecutará los acuerdos, pudiendo para ello realizar toda clase de actos y firmar aquellos documentos necesarios a tal fin.
17. artikulua. - Presidenteordea	Artículo 17. - El Vicepresidente
Presidenteordeak Presidentearen egitekoak beteko ditu Presidente falta denean, eta Fundazioaren izenean ihardun ahal izango du Patronatuak hala erabakitzen duenean. Presidenteordea ere falta denean, patrono-karguan denbora gehien daraman kideak edo, antzinatean bera dutenean, patronorik zaharrenak ordezkatzeko du Presidenteordea.	El Vicepresidente ejercerá las funciones de Presidente en caso de ausencia del mismo y podrá actuar en nombre de la Fundación cuando así lo acuerde el Patronato. Cuando falte también el Vicepresidente, el Vicepresidente será sustituido por el miembro que lleve más tiempo en el cargo de patrono o, cuando tengan la misma antigüedad, por el de mayor edad.
18. artikulua. - Idazkaria	Artículo 18. - El Secretario
Idazkariaren egitekoak dira Fundazioaren agiri guztiak zaintzea, Patronatuaren bileren aktak egitea, behar diren egiaztagirak eta txostenak egitea eta espresuki ematen zaizkien bestelako egitekoak. Idazkaria falta denean, idazkariordeak beteko ditu funtzio hauek. Idazkariordea ere falta denean, Patronatuko kiderik berrienak edo, antzinatean berdina dutenean, kiderik gazteenak ihardungo du Idazkariaren ordeza.	Son funciones del Secretario la custodia de toda la documentación de la Fundación, levantar las actas de las reuniones del Patronato, expedir las certificaciones e informes que sean necesarios y, todas aquellas que expresamente le sean encomendadas. En caso de ausencia del Secretario, estas funciones serán ejercidas por el Vicesecretario. En caso de ausencia del Vicesecretario, el Secretario será sustituido por el miembro del Patronato que lleve menos tiempo en

	el cargo de patrono o, cuando tengan la misma antigüedad, por el más joven.
19. artikulua.- Fundazioaren Zuzendaria	Artículo 19. – Director de la Fundación
Patronatuak Fundazioaren Zuzendari bat aukeratu ahal izango du Patronatoak hartutako erabakiak betearazi eta Fundazioaren kudeaketarako behar diren neurri guztiak hartzeko.	El Patronato podrá nombrar un Director General de la Fundación para ejecutar los acuerdos adoptados por el Patronato y adoptar cuantas medidas sean necesarias para la gestión de la Fundación.
Zuzendaria Patronatuak berak aukeratuko du, Patronoen edota kanpoko pertsonen artean, 22. artikuluan ezarritako gehiengoaren arabera. Zuzendaria patronatuko kidea ez balitz, Patronatuko bileretan hartuko du parte patronoek kontrakoa erabaki ezean. Hitzaz izango du, baina botorik ez.	El Director será elegido por el Patronato, de entre los Patronos y/o personas externas, por la mayoría establecida en el artículo 22. Si el Director no fuera Patrono, participará en las reuniones del Patronato salvo acuerdo en contrario de los patronos. Tendrá voz pero no voto.
Zuzendariaren izendapena eta kargu-uztea komunikatu egin beharko zaizkio Babesletzari, eta ematen zaizkion ahalordeak Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.	El nombramiento y cese del Director General deberán ser comunicados al Protectorado. Los poderes generales otorgados al Director General serán objeto de inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco.
20. artikulua. - Patronatuaren eskumenak	Artículo 20. – Facultades del Patronato
20.1 Fundazioaren ordezkaritza, administrazioa eta gobernuak Patronatuari dagokio. Patronatuaren eskumenen mugak legeek ezarritakoak baino ez dira izango.	20.1 La representación, administración y gobierno de la Fundación estarán a cargo del Patronato, el cual ejercerá sus funciones sin más limitaciones que las establecidas por las leyes.
Fundazioaren helburuak betetzeko behar diren eskumen eta ahalmen guztien jabe bakarra Patronatua da. Berari dagokio Estatutu hauek inolako mugarik gabe interpretatzea.	El Patronato es el único titular de todas las competencias y facultades necesarias para el cumplimiento de los fines fundacionales. Le corresponde interpretar estos Estatutos sin limitación alguna.
20.2 Patronatuak, indarrean dauden legeen arabera delegaezinak diren gaitan izan ezik, patrono kideei, Fundazioaren Zuzendariari, Fundazioaren langileei edo beste edozein pertsonari ahalordeak eman ahal izango dizkie.	20.2 El Patronato, salvo en aquellas materias que resulten indelegables de acuerdo con la legislación vigente, podrá otorgar poderes a los miembros del Patronato, al Director de la Fundación, al personal de la Fundación o a cualquier otra persona.
Ondasun higiezinak eskuratzea edo eskualdatzea eta ondasun higiezinaren gaineko berme errealak eratzea delegaezinak izango dira. Eragiketara hauek Patronatuaren aurretiazko akordioa eskatuko dute.	La adquisición o transmisión de bienes inmuebles y la constitución de garantías reales sobre los mismos serán indelegables. Estas operaciones requerirán un acuerdo previo del Patronato.
Hurrengo kasuetarako ahalordea gutxienenez bi pertsonen artean mankomunatu izan beharko da:	El poder para los siguientes casos deberá ser mancomunado al menos entre dos personas:
a) 60.000 euro baino gehiagoko ondasunen eskuratze eta eskualdaketak.	a) Adquisiciones y transmisiones de bienes por un importe superior a 60.000 euros.
b) Fidantzak, abalak edo edozein motatako	b) Fianzas, avales o garantías de cualquier clase,



bermeak, errealak izan ezik.	excepto reales.
c) 60.000 euro baino gehiagoko ordainketa eta ordainketa konpromisoak.	c) Compromisos de pago y pagos por un importe superior a 60.000 euros.
21. artikulua. - Patronatuaren bilerak eta bilera-deiak	Artículo 21. - Reuniones del Patronato y convocatorias
Patronatuak gutxienez urtean bi bilera egingo ditu, bata urteko lehendabiziko sei hilabetean eta bestea azkeneko hiruhilabetean. Horrez gainera, Fundazioa bide onetik joan dadin behar den beste aldiz bilduko da. Presidenteari dagokio Patronatuaren bilera-deiak egitea. Berak erabakitzen duenean edo Patronatuko 2 kidek eskatzen dutenean egingo du bilera-deia.	El Patronato se reunirá, al menos, dos veces al año, una en el primer semestre y otra en el último trimestre del año, así como tantas veces como sea preciso para la buena marcha de la Fundación. Corresponde al Presidente convocar las reuniones del mismo, bien a iniciativa propia, bien cuando lo soliciten 2 miembros del Patronato.
Bilera-eguna baino gutxienez hamabost egun leherago helaraziko zaio kide bakoitzari deialdia, kide bakoitzak deialdia jaso duela frogatzeko modua ematen duen bide batez. Deialdian, bileraren tokia, eguna eta ordua adieraziko dira, baita gai-zerrenda ere. Deialdiarekin batera eta hala dagokionean, beharrezko dokumentazioa ere bidaliko zaie Patronatuko kideei.	La convocatoria se hará llegar a cada uno de los miembros, al menos, con quince días de antelación a la fecha de su celebración, utilizando un medio que permita dejar constancia de su recepción. En la misma se indicará el lugar, día y hora de celebración de la reunión, así como el orden del día. Junto con la convocatoria y en su caso, se remitirá a los miembros del Patronato la documentación necesaria.
Salbuespen gisa, aztertu beharreko gaien presak hala eskatzen duenean, eta deialdian bertan horren justifikazioa adierazten denean, kide guztiak Patronatuaren bilerarako deialdia zein aurrerapenekin helarazi behar zaien 48 ordura murriztu ahal izango da.	Por excepción, cuando la urgencia de los asuntos a tratar así lo exija y con expresión de su justificación en la propia convocatoria, la antelación con la que deberá hacerse llegar la convocatoria de una sesión del patronato a todos sus miembros podrá reducirse a 48 horas con respecto a su hora de celebración.
